



3 UDALA

Barne funtzionamendua hobetzeko ekimena

Lasarte-Oriako udalak alde teknikoa nahiz gizatiarra landuko duen barne funtzionamenduaren berrantolaketa prozesua martxan jarri duela ezagutzera eman zuen atzo. Honakoa Ginkgo eta OPE Consultores Elhuyarrek inbateratu, burutuko delatza azaldu zuten agerraldian. Egitura berria zein izango den erabakitzeko langileekin elkarlanean hainbat esparru aztertuko dira.

4-5 BURUNTZALDEA

Lan mundua euskalduntzeko urratsak

Euskararen normalizazioan Buruntzaldeko udalak eskualdeko enpresak euskalduntzeko lanetan ari dira "Baietz gurean!" egitasmoaren baitan. Aholkularitza eta diru-laguntza lerroen bitartez urteko gehiago dira parte hartzea animatzen diren enpresak. Hauetako biren esperientzia ezagutu dugu. Bi kasuetan halako ekimenak gauzatzearren beharra azpimarratu dute euskara ahalik eta esparru gehienetara zabaltzeko.



Herritarren iritzia jaso du udalak
446 herritar inkestatu dira udal gobernuaren balorazioa egiteko

Lasarte-Oriako udalaren eskaerari erantzunez Aztiker enpresak herritarrei galdeketa egin zien bi urte hauetan udal gobernuak egin duen lanaren balorazioa jakiteko. Udal gobernuak lortu du nota altuena, gertutik PSE-EEK jarraitzen duelarik. Alkatearen lana da gehien baloratutakoa eta Jesus Zaballos da ezagunena.

... y en la memoria de los dos últimos años.

... quienes creen que la situación actual del Ayuntamiento es más que buena. Además, se opina que durante estos dos años la situación económica ha mejorado.



Alaitz Mendizabal, Pablo Barrio alkatea eta Ekhi Zubiria Aztikerreko kidea agerraldian.

Aztikerreko Ekhi Zubiriak inkestaren emaitzen aurkezpenean azaldu zuenez inkesta egiteko 15 urteko gorako herritarrak hautatu ziren, 15.459 izanik, 446 pertsonako lagina aukeratu zen.

Alaitz Mendizabal Parte Hartze batzorde buruak Pablo Barriorekin batera egin zuten inkestaren balorazioa. "Orokorrean inkestan hauteman diren emaitzak positiboak izan dira" herritarrek udal gobernuaren gertutasuna eta parte hartzea baloratu dituzte eta euskararen alorrean egin den lana aitortzen dute.

Bestalde, "udala eta herriko elkarten harreman onaren ondorioz" Mendizabalen arabera, herritarrek Lasarte-Oriako ekimen gehiago daudela diote. Inkestaren arabera udal gobernuak 5,9ko nota jaso du jarraian PSE-EE izanda baloratuena 5,3 batekin.

Alkateak burutzen duen lanari dagokionez, 6,3 ematen diote herritarrek "alkatearen bertuteak gertutasuna, herritarren iritzia entzuteko duen konprometua eta parte hartzea sustatzen egiten duen ahalegina".

Euskarari dagokionez herritarrek aldaketa bat nabaritu dute, hizkuntza udal zerbitzuetan presenteko dagoela uste da 7,2arekin baloratu. Bestalde "udalak parte hartzea sustatzeko egiten duen ahalegina baloratzeko eskatu da eta %80ak positibo edo oso positibotzat jo du".

Herritarren kezak

Inkestan herritarrek modu negatiboan baloratu dute herriko mantenua zuzenduriko lanak, garbiketa, argiztapena, konponketak etab. "Egia da inbertsiorako bi urte hauetan mugatuta egon dela udala".

Bestetik, udalerriko egoera sozioekonomikoa hobetzeko udalak gehiago egin behar duela irizten dute herritarrek. Aparkalekuak dira arazo larrirenetako bat askorentzat.

Kiroldegia da okerren baloratutako udal zerbitzua, "hainbat esparrutan zaharkituta geratu da eta horregatik agian balorazio negatiboa".

Datu batzuk

Inkesta erantzun dutenen pertsonen gehiengoak %39,9 55

urte baino gehiago dituzte. 446 herritar horietatik 77 langabezia daude. Kezka sozial nagusiak: langabezia, aparkaleku eskasia, kaleen eta jardinen garbitasuna, laguntza sozialak indartu beharra, gazteria laguntzeko beharra, txakur kaken biltzea, etxebizitza, hondakinen kudeaketa eta errepideen konponketa dira zerrendako lehen hamarrak.

Zertan egin du hobera udalak, lehenengo hamarrak: udala herritarrekiko gertuago dago, herritarren parte hartzea bultzatzen da, aktibitate eta ekintza gehiago dago herrian, euskara, festak, gazteentzako ekintza gehiago, udalaren kudeaketaren gardentasuna, aisialdi eta kultur eskaintza, herri lanak, haurrentzako espazio eta ekintza gehiago.

Okerrera galdetzerakoan, kaleen eta jardinen mantenua, langabezia, aparkaleku eskasia, txakur kaken biltzea, hondakinen kudeaketa, eraikuntza eta herri lanak ez dira egiten eta asko bukatu gabe daude, zerbitzu publikoen murrizketa, tasa eta zergen garestitzea, krisi eko-

nomikoa, auzoak alde batera uzten dira dena zentroan egiten da eta udalak alderdieriaz jokatu du, ez du jarrera berdina herritar guztietatik.

Beste datu batzuen artean, herritarren %64 uste du zergak garestiak direla. Oso positiboki %80 baloratzen da udalak herritarren parte hartzea sustatu nahi izana. %61,2ak dio ez duela parte hartze prozesuen inguruko informaziorik. Auzoz-uzo ekimena da ezagunena %27,6rentzat eta %18ak parte hartu du. Esparru honetan herritarren hitza kontutan asko hartzen dela uste du %25,9ak, zerbait %38,8ak eta gutxi %18,2ak.

Lasarte-Oriako herritarren arteko bizikidetzaren nolakoa den galdetuta %85,6ak oso ona edo ona dela deritzen eta bizikidetzaren arazorik ez dagoela uste du %83,4ak.

Kultura, festa eta aisialdi eskaintzari dagokionez, %62,9ak nahikoa dela dio, %23,7ak txikia eta %13,4ak handia.

Inkesta publikoa da eta udalaren weban dago eskuragarri. Aipatu, herritar batzuek Txintxarri gazteleraz izateko ere eskatu dutela.

LOGOPEDIA
Haurrak-Gazteak-Helduak
TERAPIA MIOFUNTZIONALA

- ARNASKETA ARAZOAK, DEGLUZIOA
- AHOTSAREN TRATAMENDUAK: DISFONIA, AFONIA,...
- IKASKETAREN GORABEHERAK: DISLEXIA, DISORTOGRAFIA, DISCALCULIA, TDA-H,...
- HIZKUNTZA ETA ULERMENAREN ZAILTASUNAK
- AFASIAK

Aurretiko hitzordua: 635 701374

Zitek
HOBE TU NAHI?
LAGUNTZA KLASEAK
Zientziak eta hizkuntzak
Informatika

Goikale 12 behea • Tel.: 943 363106
20160 Lasarte-Oria
www.zitek-akademia.com

Neure kabuz



Unai Muñoa

Ongi etorri osaba!

Zer sentitzen ote da egunez egun ziegako atea noiz irekiko zain, zure bizitza mendeku gose diren gabitu denean, mendira joatea amesten dutuzunean, etxekoan muxuak orozten dituzunean, maitearekin larrua jotzea desio dutuzunean...? Zer ote da ia hiru hamarkada askatasunik gabe bizi behar izatea?

Euskal gatazka deritzaionak, kontestu zehatz bat du, eta gure historia- ren orrietan ageri da, azken bi mendetan gutxienez, ez dela belau- naldi bakar bat ere izan bakea eza- gutu duenik. Norberak bere lubakitik egiten badu bere egia- ren kontakizuna, horrenbeste hamarkadatan gerta- tutakoaren azkia ez du gu erraz gaindituko. Bake prozesua indarrak neurtzeko bataila gisa ulertzen bal- din badugu, nekez iritsiko gara elkar- bizitzaren balioetara, eta nekez lortuko dugu normalizazio politikoa.

Gehiago edo gutxiago, zuzenean edo zeharka, denok batera osatu dugu zoritxarreko malko putzu hau, eragindako zein pairatutako negar malkoek bete dutena. Bat nator egi osoa egi guztien batura dela esaten dutenekin, eta uste dut hori onartzen dugunean hasiko garela bide berri eta desberdin bat marrazten.

Herrira itzuli dira Txurdi eta Mitxel, umea naizenetik tabernetako hormetan zintzilikatutako argazkie- tan ikusi izan ditudanak, lehen aipa- turiko kontestu horren biktima izan direnak, gurean izua besterik zabal- du ez duten poliziek eraman zituzte- nak, laubakiaren alde batean jartzea erabaki zutenetik.

Kontuz ibili behar da hitzekin. Zeren, doan egiten ditugun aitorenak garesti iritien dira gurean. Agian, sei urteko ilobatoak, "ongi etorri, osaba" dioen koloretako kartulina bat erakus- ten badu, delitu bat egiten ari delako. Agian, Txurdi eta Mitxel etxean direla jakitean poza sentitu dudala esateak, arazo legalak suposatuko dizkidalako.

Esan gabe esaten asmatu beharko dugu, bertsolari zaharrek garai zaha- rretan bezala. Baina, txoriak kaiolan jarraitzen duen bitartean, ezingo dugu askatasunean bizi garenik esan.

Zorion agurrak



Oier

Mila kilo zorion zure familieren partetik.



Anartz

Kaixo pottolo! Txoko- marrubizko muxuak zure lehenengo urtebetetzean.



Urko eta Ibai

Zorionak bikote!!! Ondo pasa eta musu handi bat maite zaituztegunen partetik!!!



Gizane

Zorionak sorgintxua!!! 70 muxu igandeko kideen partetik!



Nahia

Zorionak!! Zure gura- so eta familieren par- tetik hamar muxu potolo!!!



Irati

Zorionak Sorgina!!!! Pilo bat maite zaitugu, segi horrela 8 muxu potolo!!



Aimar

Zorionak eta zazpi muxu handi familieren partetik.



Manex

ZORIONAK bitxo! Muxu handi bat zure 5. urtebetetzean, familia osoaren partetik.



Leire

Zorionak etxeko printsesa! Muxu potolo Iraia, amatxo eta aita txoren partetik zure 9 urtebetetzean.



Judith

Zorionak gurasoen eta zure ahizpa Jessicaren partetik.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Etxebizitza alokatzen da Sasoea auzoan. 2 logela ditu eta berogailua etxe osoan. Harremanetarako telefonoa: 649 526 766.
- Urbarteko auzoan Atsokabar erresidentzia frentean garaje marra bat alokatzen da. 943 364 169. (Gabriela)
- Garaje marra alokatzen da Atsokabarren, Garaikoetxea ikastetxe parean. Sarrera erraza du, handia eta merkea da. 943 365 476/659 021 945.

Salerosketak

- 3-4 urteko umearentzat bizikleta bat eta panpinak eramateko karririkotxea erositko nituzke. 617 58 40 95.
- CITROËN C4 1.6VTR PLUS 110CV salgai. 2007 urtekoa da, diesela eta extrekin. Miguel, 947 503 231.

Lan-eskaria

- Lana bilatzen dut garbiketan zein adinekoen zaintzan gaudetan, asteburuetan edo orduka. 634 419 681.
- Lana bilatzen dut garbiketan zein adinekoen zaintzan interna edo externa moduan. 646065548.
- Lan bila nabil. Etxeak garbitu, zaharrak edo haurrak zainduko nituzke goizetan, igande edo jai egunetan. Harremanetarako: 943 404 015. edo 606 661 048 zenbakira deitu, Doris.
- 45 urteko emakumea eskaintzen da pertso- na nagusiak zaintzeko. Interna moduan edo orduka. 647 315 612.
- 32 urteko neska batek interna bezala lana bila- tzen du, pertsona nagusiak zaintzen. 638 187 124.
- Asteburuetan pertsona nagusiak zaintzen lan egiteko prest nago. 617 761 423.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin,

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Izaro Santamaria de Jesus, azaroak 1 lan.
- Maria Lazzano Castrillejo, azaroaren 8an.



Heriotzak

- Encarnacion Barreña Cuadrado, azaroaren 14an, 87 urte zituela.
- Mari Carmen Goyaran Leiceaga, azaroaren 14an, 83 urte zituela.
- Maria del Castañar Moreno Nieto, azaroaren 11ean, 86 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 22 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Larunbata, 23 Gandarias-Urbe, l. de Loyola 9	943 019521
Igandea, 24 Gandarias-Urbe, l. de Loyola 9	943 019521
Astelehena, 25 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Asteartea, 26 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Asteazkena, 27 Gandarias-Urbe, l. de Loyola 9	943 019521
Osteguna, 28 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Aldabe, Perkaiztegi 8
Hernani, Tel.: 943 336 022

haurrak edo pertsona adinduek zaintzeko. Interna edo orduka. Harremanetarako, 673 510 914.

- Mutil gazte arduratsu, alai eta esperientzia- duna umeak zaindu, eskolako lanetan lagundu, klaseak eman edo/eta etxeko lanak egiteko eskaintzen da. Bai astegun, bai jai egunetan. Telefonoa: 687 303 893.

- Adinduek zaindu eta garbiketa lanetarako emakumea eskaintzen da. 657 457 642.
- Emakumea eskaintzen da garbiketan lan egi- teko. Aukeran nahiago interna moduan. Espe- rientzia eta erreferentzietan. 659 064 188.

Lan-eskaintza

- Emakume euskalduna behar da edadeko pertsona zaintzeko. Astelehene- tik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara. Harremanetarako telefonoa: 650 678 772.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttikon Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Alezan zenbakiko: 7800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidor Azumendi, Nerea
Ezzagire, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Maitu Armuti,
Aster Odriozola, Jone M.
Hernandez, Oihana Salazar,
Pako Aizpitarte, Edu Galardi
Informatikoa:
Xabier Amadoz

UDALA

Berrantolaketa Udaletxean

Barne funtzionamendua hobetzeko prozesua martxan jarri da

Lasarte-Oriako udalak alde teknikoa nahiz gizatiarra landuko duen barne funtzionamenduaren berrantolaketa prozesua martxan jarri du. Honakoa Gingo eta OPE Consultores Elhuyarrek batera burutuko dela jakitera eman zuten atzo egindako agerraldian.



Ostegunean egindako agerraldian alkatea eta langileen ordezkaria adituekin.

TXINTXARRI

Alkateak Imanol Goikoe-txea langileen ordezkariarekin eta ekimena aurrera eramango duten enpresetako ordezkariarekin agerraldia egin zuen berrantolaketa prozesuaren nondik norakoak azaltzeko. "Honekin nahi da udaletxean lanean dabilzan langileen funtzioak, sailen egiturak, sailen arteko koordinazioak eta horrekin erabat lotuta dauden langileen arteko harreman nahiz hauek lantzen laguntzen duen alderdi emozionala hobetu daitezkeela uste du udalak".

Alkateak azpimarratu zuenez, "erakunde bat pertsonen osatua egonik, pertsonen arteko lan-harremanak, pertsonen emozioak... kontutan edukitzea garrantzitsua direla iruditzen zaigu antolaketa egoki batek aurrera egin dezan".

Askotan kontutan hartzen ez den faktore bat alde gizatiarra dela aipatu zuten. Egitura baten eraginkortasunean hobekuntzak egin nahi direnean ongi funtziona dezan, kontutan hartu eta landu beharreko esparrua dela aipatu zuten.

Udalak barne berrantolaketa prozesu bat jarri du martxan. "Prozesu bat eta bakarra, modu koordinatu aipatutako bi eremuak landuko dituen, lan antolaketa alde teknikoa eta alde gizatiarra uztartuz". Prozesu hau aurrera eramateko bi enpresa arituko dira, elkarlanean bakoitzak bere espezialitateko lanak eta ekarpenak egiten.

Alde batetik Gingo enpresa arituko da, Jesus Hernandez adituaren gidaritzapean. Enpresa honen helburu nagusiak udaleko alde gizatiarra eta parte-hartzea lantzea izango dira baita udaleko egituraren azterketa teknikoa egingo duen enpresarekin elkarlanean aritzea. Lan tekniko OPE Consultores eta Elhuyar enpresen eramango dute aurrera.

"Udalak orain arte herritarrekin izandako harremanetan parte-hartzea sustatu nahi izan du, eta parte-hartze hau udaleko langileekin ere praktikan jarri behar da denok osatzen baitugu Lasarte-Oria".

Lan teknikoa aurrera eramanez, lau enpresen Udal barnean egin beharreko lanak betetzen zituzten proiektuak

aurkeztu zizkieten langileei. Langileek informazio osoa jaso ondoren, bozka bidez aukeratu zuten enpresa eta proiektua, aipatutako biak hautatuz.

Prozesuak alkateak aipatu zuenez, udaleko alderdi politiko guztien babesa du eta baita langileen komitea osatzen duten sindikatuena ere.

Imanol Goikoe-txea langileen ordezkariak aipatu nahi izan zuen langileen oniritzia daukala egitasmoak "hasieratik langileok parte hartu ahal izan dugulako, enpresak guk aukeratu genituen proiektu hobereak hautatuz".

Langileen inplikazioa erabatekoa izango da prozesuan eta honekin kontsentsuzko barne egitura bat eraiki nahi da. Horretarako bost hilabeteko lana gauzatuko da. "Langileak euren lanpostuan gustora egonda herritarrek nabaritu dute". Adituek udalak emandako pausoa aurrera dela aipatu zuten. "Orain arte adituek antolaketa bat egin zuten enpresa aztertu ondoren eta aplikatzeko ematen zuten, hemen langileekin adostuko da egitura eta nola eraman aurrera".

SANTA ZEZILIA

Musika eskolako ospakizuna

Asteartean Musika Eskolako ikasle eta irakasleek Santa Zezilia musikariaren patroien oroienez kontzertu laburra eskaini zuten asteartean. Kalejira egiteko asmoa zuten herriko kaleetan barrena baina eguraldi txarra medio musikari gazteek Manuel Lekuonan bertan egin zuten emanaldia. Kalejira txikia egin zuten gazteenek ikusleen artean oholztan zaharrenek musika jartzen zuten bitartean.

"Ikusi mendizaleak", "Euskara", "Arratsalde honetan" eta "Musikalean" abestiak eskaini zituzten. Festa giroan txokolatada goxoa dastatzeko aukera izan zuten ere.

Gaur Amalur trikiti eta pandero eskolakoez egingo dute kalejira 18:00etan eskolatik aterata. Larunbatean Xumelaren kantujira berezia izango da 12:00etan hasita. Igandean berriz, Alboka Abesbatzak Arantzazuko Ama elizako meza nagusia girotuko du, 12:30ean.



EMAKUMEAK

Maitasun erromantikoaz hausnartzen

Asteartean Emakumeen Zentroak antolatutako egitarauaren baitan zineforuma egin zen Manuel Lekuonan. Bertan "Blue Valentine" filma ikusi zuten. Honetan bikote gazte bat da protagonista eta erakusten duten harremana izan zuten ondoren hizpide. Dinamizatzailearekin maitasun harremanen inguruan solasaldia egin zuten bertaratuak emakumeek.

Bikote, maitasun harremanen inguruan hausnartuta indarkeria zergatik azaltzen den ikus daitezkeela azpimarratu zuten dinamizatzaileak. Horregatik azaldu zuten garrantzitsua dela maitasun erromantikoa inguruan norberak gogoeta egitea baita bikote harremana nolako nahi edo izan behar den argi edukitzea ere.

LITERATURA

Irakurle txokoak aurrera darrai

Irakurle txokoaren bigarren saioa egin zen asteartean Villa Mirentxun. Honetan "Dantzaldia" liburuz hitz egin zuten Uxue Alberdi idazleak gidatuta bertaratuak 30 lagun inguruk.

Datorren hitzordua abenduaren 10ean izango da eta honetara idazlea gonbidatu dute Miren Agur Meaberekin egin bezala. Harkaitz Cano-ren "Twist" eleberriaz hitz egingo da eta idazlea bertan izango dute. Parte hartzaileek herritarrek liburua irakurri eta Canoren solasaldira gerturatzea animatzen dituzte. Saio guztiak 18:30ean dira Villa Mirentxun.

PSE-EE Aldundia eta Jaurlaritzarekin haserre

Lasarte-Oriako PSE-EEK astelehenean Bildu eta EAJ alderdiek Foru Aldundian onartutako inbertsiorako funtsaren banaketarekin ados ez dagoela jakitera eman zuten. Era berean, Eusko Jaurlaritzak Atsokabar auzoan soinu neurketarik ez duela egingo ere aurreratu zuten.

PSE-EE ez dator bat Bildu eta EAJ-k Gipuzkoako Foru Aldundian onartu duen funts banaketarekin. Udal-inbertsioetarako 6.000.000 euro onartu dira eta Lasarte-Oriak 122.315 euro jasoko ditu.

Jesus Zaballos PSE-EEko bozeramaileak azaldu zuenez, "ez gatoz bat, udal-inbertsioak bultzatzeko erabili duten irizpidearekin, kopuruari dagokio-

nez, ezta banaketa moduarekin ere".

Zaballosek aipatu zuenez, Bildu eta EAJ-k herri txikiaren aldeko banaketa egin dute eta handiak "zigortu" ditu. Adibide gisa, Aiak biztanleko 31 euro jasoko dituela jakitera eman zuten; Lasarte-Oriak, berriz, biztanleko 6,86 euro. Gainera, udal hauek udal-finantzaketa funtsaren onuradun ere direla gogoratu zuten.

Horregatik, toki-erregimeneko oinarriak arautzen dituen legearen arabera biztanleria kontuan hartu beharko litzatekeela uste du PSE-EEK, "zenbat eta biztanle gehiago, gero eta zerbitzu gehiago eskaini behar baititu herri batek".

Era berean, bere atsekabea agertu zuen Foru Aldundian PSE-EEK aurkeztutako mozioa ez zelako aztertu, "honen bitartez Lasarte-Oriak 168.423 euro jasoko zituen".

Eta proposamen honetan, Foru Aldundiak bere gain hartu ez dituen zaharren egoitzek sortutako gastuak laguntzeko 2 milioi euro aurreikusten zirela ere aipatu zuten.

Euskotreneko soinuak

Bestalde, prentsa ohar bitartez, Lasarte-Oriako PSE-EEK jakin arazi zuten, Eusko Jaurlaritzak ez duela soinu neurketarik egingo Atsokabar auzoan.

Euskotreneko trenak Atsokabarreko bihurgunean sortzen



Jesus Zaballos asteleheneko prentsurrekoan.

duten soinuak kexu dira bizilagunak. PSE-EEK Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika sailburuari, Oregiri haien ezinegona jakinarazizion.

Sailburuaren erantzuna "2012 urtean egindako neurketatik ez da baldintzarik aldatu, beraz ez da neurketa berririk

egin behar. Hala ere, herritarren kexak aztertu eta erantzuna bilatuko da" izan zen.

PSE-EEri tamalgaria deritza, legez behartua dagoelako bost urtean behin bakarrik neurketa horiek egitea eta galdera bat eginen diote sailburuari, "zer egin behar dute bizilagunek 2017 urtera arte?"



Enpresak euskalduntzeko urrats erraz bezain sendoak

Euskararen normalizazioan Buruntzaldeko udalak euskalduntzeko enpresak euskalduntzeko lanetan ari dira "Baietz gurean!" egitasmoaren baitan. Aholkularitza eta dirulaguntza lerroen bitartez urtetik urtera gehiago dira parte hartzen duten enpresak. Hurrengo helburua udaletako hornitzaileak diren enprekin lan egitea izango da.

"Baietz gurean!" Buruntzaldeko herrietako 10 langiletik gorako enpresei zuzendutako egitasmoa da. 2010etik Buruntzaldeko Udalen asmoa da ahalik eta enpresa gehien hartzea euskararen erabilera normalizatzeko bidean, eta horretarako, helburu instrumentaletan batez baliatzea erabaki dute. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ematen duen ziurtagiriarekin bat lortzeko bidean enpresak hartzea, eta ibilbide horietan diruz laguntzea.

Buruntzaldeko udalak duten helburua da, Bikain Ziurtagiria erreferente hartuta, euskararen erabilera normalizatzeko bidera erakartzeko enpresak, horretarako aurrerapausoak diruz lagunduz.

Ekimen honetan parte hartzea erabakitzen duten enpresei azterketa bat egiten die enpresa aholkulariak egoera linguistikoa zein den jakiteko. Horretarako, HPSK "Lan Hitz" programaren barruan definituta duen Erreferentzia Marko Estandarra erabiltzen du.

0-1000 puntuko tartean neurtuko da egoera. Enpresa aholkulariak txostena egindako zehaztuz neurtuak eremaitza eta enpresa horrek hurbilen duen Bikain Ziurtagirirako bidean egin beharre-



2012ko sinaduran eskualdeko alkateak izan ziren enpresetako ordezkariekin batera.

koak. Bide horretan, 100 puntuko salto bakoitzeko jasoko dute diru saria Udalaren eskutik. Hasierako puntuak gehiago sarritu dira: 0-500 tartean 700 euro salto bakoitzeko, 501-800 artean 500 euro, eta 801-1000 artean 300 euro.

Enpresak parte hartzea erabakitzen duenean, urte beteko hitzarmena sinatzen du Udalarekin, luzatzeko aukerarekin, eta hitzarmen horretan jasoko da, besteak beste, udalak enpresari eman diezaiokkeen dirulaguntzaren inguruko informazioa.

2004tik lanean

Buruntzaldeko udalek 2004. ean ekin zioten eskualdeko lan munduan euskararen erabilera normalizatzeko sustapena egiteko programari. Helburua zen ahalik eta enpresa gehien hartzen jarzea euren euskara plana egiten. 20 enpresa inguru abiatu dira gerotik euskara planetan eta aipatu behar da, horietako

"Buruntzaldeko udaletako hornitzaileengana iristea izango da eskualdeko euskara zerbitzuentzat hurrengo erronka

batzuk oraindik jarraitzen dutela planaren faseren batean.

Plan hauek burutzen ari diren enpresak Hizkuntza Politika Sailburuordetzako diru laguntzak jasotzeko aukera dute eta horretarako urtero ateratzen den deialdia baliatuz eskaera egiten dute.

Aurtengoan, eskualdean "Lan Hitz" programaren bidez ematen diren laguntzak adibidez: Autocares Aizpurua (Usurbil), Berriola S. Coop (Usurbil), Galemis S.L. (Hernanin egoitza bat), Latz (Andoain), Orona (Hernani), S.Izaguirre S.A. (Usurbil), Selectiva San Marcos UTE (Hernani), Telesonic S.A. (Lasarte-Oria) edota Victorio

Luzuriaga Usurbil (Usurbil) enpresek jaso dute.

Bestalde, aipatu bezala, 2010etik "Baietz gurean!" egitasmoa garatzen ari dira Buruntzaldeko udalak, eta lanketa horren ondorioz haubak dira momentu honetan euskararen erabilera normalizatzeko lanetan ari diren enpresak. Besteak beste, Katealegia, Sulabe, Adarra, Latz, Horma, Etxeberria, Hosteler del Norte S.L. eta Aldikar autoak S.L.

Hurrengoak hornitzaileak

Lan mundua euskalduntzen jarraitzeko eta heritarrari zerbitzu hobe eskaintzeko helburuarekin, Buruntzaldeko udaletako hornitzaileengana

heltzea da jarritako hurrengo erronka. Hornitzaileak aukeratzeko garaian, ahalik eta herri edo udal, gehienetako hornitzaileak izatea baloratu da baita enpresa gure eskualdean kokatzea besteak beste.

Egun udalak baldintza pleguen bitartez erregulatutako dezakete hornitzaileen hizkuntzako betebeharrak baina beti ez da aukera hau egoten kontratazio motaren araberako delako.

Hori dela eta, Buruntzaldeko udalen helburua da hornitzaile hauekiko harremana, idatzizkoa bezala ahozkoa, euskaraz izatea, eta horretarako behar duten laguntza eskaintzea.

Ahalik eta hornitzaile gehienetara iritsita "Baietz gurean!" egitasmoaren bidez hizkuntza politikak egokia ezartzeko laguntzak eskainiko dira dokumentazioa euskaraz jartzeko, errotulazioa euskaraz jartzeko baita lehenengo hitza euskaraz izan dadin beti.

Txetxu Alberdi Aldikar Autoak

"Euskara orain gure lan esparruan presente dago"

Lasarte-Oriako Aldikar Autoak enpresak "Baietz Gurean!" egitasmoarekin bat egin du aruten eta oso pozik daude emandako pausuarekin. Euskara eguneroko lanaren parte bihurtu dela dio Txetxu Alberdik. Administrazioaren ustez euskararen normalizaziorako bidean halako ekimenak eta laguntzak beharrezkoak dira eta enpresa guztietan egin beharrezkoak.

Orain dago kokatuta Aldikar Autoak Mitsubishiko kontzesionario eta tailerra. Lasarte-Oriako enpresak lehen aldiz egin du bat Baietz gurean! egitasmoarekin. Txetxu Alberdi bertako langilea oso pozik azaltzen da egitasmoarekin, honi esker lan eremuan euskara behintzat presente dagoelako.

Nola sortzen da enpresan Euskara sustatzeko egitasmoarekin bat egitea?

Esan behar du lehenengo ni hasi nintzela harremanetan jartzen haubak erakunderekin. Nahiz eta euskalduna izan eta euskaraz ikasketak burutu, mugatuta sentitzen nintzen askotan nire eguneroko lanean euskarazko hitz teknikoekin etab.

Horrela pixkanaka joan nintzen ikusten haubak aukera eta laguntza zuela enpresen barruan euskara sustatzeko. Iruditu zitzaidan egitasmo horietako bati heldu behar geniolako gure fakturak eta batez ere bezeroei ematen zaien dokumentazioa euskaraz edukitzea.

Zuk proposatu zenueu Euskara Gurean! egitasmoarekin bat egitea?

Bai hala da. Pertsonalki euskararekiko dudak atxikimendua bultzatu ninduen enpresako zuzendaritzari gaia mahai gainean jartzea.

Kontutan izan behar da Mitsubishiko kontzesionario bat garelako eta multinazionalak bidualtzen digu lan egiteko beharrezko dugun doku-

mentazio eta informazio guztia. Ez dago gure esku kotxeen katalogoak etab.en aldaketa. Baina hala ere, enpresaren barruan eta bezeroari ematen zaizkien dokumentuetan behintzat, batez ere fakturak edota kotxea erostera etortzen diren harrerak, euskaraz egitea landu beharrezko gaia zela ikusi zen zuzendaritzan eta ondo hartu zuten proposamena beraz aurrera egin genuen.



Zen da enpresan euskararen egoera?

Momentu honetan langile gehienak erdaldunak dira. Orain karteletan ikusten dugu behintzat, ohar batzuetan, haubak lan beti erdaraz egin direnak orain tarteka euskaraz egiten ditugu, bezero eskaldun bat datorrenean saiatzen gara euskaraz arreta ematen... Ez da asko, oraindik barne funtzionamenduan hizkuntza nagusia gaztelara delako baina esan bezala pixkanaka bada ere, aurrera pausak dira. Gure lan esparruan euskara behintzat presente dago.

Egitasmoan parte hartzen hasi zinenetik aldatzerik somatu al duzu? Enpresa munduan ez soilik

gurean, nik uste dut guxti bada ere, aldaketa handia dela behintzat euskararen presentzia nabaritzea.

Orain karteletan ikusten dugu behintzat, ohar batzuetan, haubak lan beti erdaraz egin direnak orain tarteka euskaraz egiten ditugu, bezero eskaldun bat datorrenean saiatzen gara euskaraz arreta ematen... Ez da asko, oraindik barne funtzionamenduan hizkuntza nagusia gaztelara delako baina esan bezala pixkanaka bada ere, aurrera pausak dira. Gure lan esparruan euskara behintzat presente dago.

Balorazioa zein da? Balorazioa ona dela esango nuke. Esan bezala kantitateari begira ez dirudi asko egin dugunik baina euskararen erabilera gurean normalizatzeko urrats garrantzitsuak eman ditugula iruditzen zait. Gure bezeroen hizkuntza eskubideak bermatu behar ditugu eta ikusi besterik ez da egin behar kotxea erostea etorri eta lehenengo hitz euskaraz eginda zenbat irabazten dugun bi aldeek.

Bezeroak gertutasuna nabaritzen du eta salmantan hori asko baloratzen da.

Aritz Ajuria Comercial Hosteler del Norte

"Gure esku dago euskara lanean ere erabiltzea"

Comercial Hosteler del Norte enpresarentzat bigarren urtea da "Baietz Gurean!" parte hartzen. Aritz Ajuria langileak urrats garrantzitsuak eman direla dio, enpresaren sorreratik ia zuden hizkuntza ohiturak aldatzen joan dira pixkanaka eta enpresarentzat krisi testuinguruak edozein proiektu aurrera eramateko egunerokotasunean zailetasunak jarri arren, euskararekiko duten konprometua sendoa dela azpimarratzen du.

Comercial Hosteler del Norte enpresarentzat bigarren urtea da "Baietz Gurean!" ekimenean parte hartzen. Hori esker urteetan, enpresaren sorreratik, egon diren hizkuntza ohiturak pixkanaka aldatzen doaz. Askok laguntzen du langilean artean euskara izatea hizkuntza nagusia. Honek bidea erraztu die-lakoan dago Aritz Ajuria bertako langilea.

Zergatik erabaki zenuten Baietz Gurean egitasmoarekin bat egitea?

Gure enpresan langile gehienak euskaldunak dira eta gure egunerokotan, euskara oso barneratuta dago.

Hala ere, iraganeko ohiturak eta egiteko moduko oso

Enpresan orain euskararen egoera hobe dela esango zenue?

Poliki-poliki bagabiltza gauzak aldatzen. Garrantzitsuena, langile gehienek euskara asko bizi dugula da eta gure artean euskaraz aritzeko ohitura dugula.

Oinarri hau iada edukita, prozedura aldatetako, formalismozko gauzak aldatzea edo dokumentuak itzultzea gutxi-gutxi egin dugu ditugun aldatetako izango dira.

Bigarren urtea da egitasmoarekin bat egin duzue. Zeintzuk izan dira emandako aurrerapausoak? Une zailak dira enpresa munduan, ekonomia gaizki dago eta enpresa gehienetan gauzak zail daude.

Testuinguru honetan, edozein proiektu aurrera ateratzea zaila bihurtzen da izan ere, egunerokoak eta krisia gainditzeko lanean gainditzen gaituzte. Hala ere, euskararen inguruan enpresaren konprometua argia da eta ohiturak aldatzea



eta euskararen presentzia handiago izatea gure helburu argiak dira urte honetan ere.

Nola baloratzen duzue udalak halako ekimenak bultzatzea?

Aipaturiko krisi egoera hau udaletan ere nabaria da, beraz horrelako proiektuak aurrera ateratzea txalagarria iruditzen zaigu.

Euskararen inguruan, euskaldun gehienak izugarriko estima diogu hizkuntzari, baina jendea, kasu honetan eskualdeko udaletako tek-

nikari horiek euskararen etorkizunean horrelako indarrarekin lan egiten ari direla ikusteak guretzat oso handia da eta horrela jarrai dezaten desio dugun noski.

Animatuko zenituzke beste enpresak bat egitera?

Noski, animatuko nituzke bai enpresak. Euskararen etorkizuna, gure esku dago, euskaldunon esku, eta gu saiatu behar gara euskarera gure lan esparruan, enpresa munduan ere geroz eta normalizatuago egoteko.

- Andoingo Udala**: Goko plaza, 2/g, 20140 Andoain
- Astigarragako Udala**: Foru enparantza, 20115 Astigarraga
- Hernaniko Udala**: Gudarien plaza, 1, 20115 Hernani
- Lasarte-Oriako Udala**: Kale Nagusia, 22, 20160 Lasarte-Oria
- Urnieta Udala**: San Juan plaza, 2/g, 20130 Urnieka
- Usurbilgo Udala**: Jose Martin Sagardia plaza, 20170 Usurbil

LABURRAK.-

Ostadar SKT-ko Gabonetako loteria salgai

Ostadar Saiarre Kirol Taldeak jakin arazten du, Gabonetako loteriako txartelak salgai dituela bere egoitzan, Geltoki kalea 4. Loteria zenbakia 04801 da. Txartelak 2,50 eurotan dira eta aste-lehenetik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara eskuratu daitezke.

Ezker hormako finalerdia larunbatean

Bihar, arratsaldeko 16:00etatik aurrera, Ezker hormako Gipuzkoako txapelketako finalurrekoa izango da Kirol guneko pilotalekuan.

Intzako I. jubenil mailako bikoteak, Axier Arteaga eta Mikel Arangurenekin Aurrera Saiatzeko Txiaipuso-Aburuza bikotea izango du aurrez aurre.

Intza taldeko arduradunak Jose Felix Solanok adierazi digunez, "partida irabaztea espero dugu". Era honetara, abenduaren 1ean Ezker hormako finalean egoteko aukera asko dituztela onartu du.

Judokak Amurrion zorterik ez

LOKEko juniorrak Espainiako koparako baliozgarria zen Amurrioko Hiria nazioarteko proban izan ziren. Gorka Aristegiren mutilak ez ziren fin ibili.

73 kilo azpiko mailan Mario Garrido eta Abayuba Gutierrez izan ziren lehian. Garridok bi borroka irabazi eta bat galdu zuen. Abayubak berriz, bat irabazi eta bat galdu zuen. Bigarren aukeran biak kaleratu zituzten lehen norgehiagokan.

Jon Arroyo 66 kilo azpiko mailan lehiatu zen eta borroka bat irabazi eta bat galdu zuen. Josu Olmos 60 kilo azpiko mailan, lehen borrokan kaleratua izan zen.

Beltzak-eko Ibisate eta Cubreiro Euskadirekin

Beltzak Ostadar Jalai eskolako arduradunek jakitera eman digutenez, infantil taldeetako bi kidek Euskadiko selekzioaren deia jaso dute.

Jon Ibisate eta Julen Cubreiro gazteak Euskadiren 14 urte azpiko taldearekin entrenatuko dira.

Beltzak taldeko lagunak oso pozik agertu dira, Errugbi eskolan taldeak egindako lanak bere fruituak eman dituelako.

TXIRRINDULARITZA.-

Bazpi Amorebietan garaile

Xuban Errazkin hirugarren Amezaga eta Amorebietan

Buruntzazpi txirrindulari eskolako gazteek ez dute atsedetik hartzen. Ziklokros denboraldian buru belarri ari dira lehian eta berea fruituak lortu ditu. Xuban Errazkinek sasoi onean dagoela erakutsi zuen eta igandean Amorebietan Bazpiko mutilek talde garaipena eskuratu zuten.

TXINTXARRI

Lehenengo asteburuan bi proba izan zituzten Buruntz Azpi eskolako gazteek, Amezaga eta Amorebietan.

Larunbatean Araban izan ziren, Amezagako proban. Bazpi eskolako kideek aipatu digutenez, "ibilbide gogorra" izan zen, lokatza eta elurrari aurre egin behar izan zioten txirrindulariek.

Hala ere, Xuban Errazkinek jubenil mailako hirugarren postua eskuratu zuen. Xuban ederki ibili zen lehen



Bazpiko taldea Amorebietako podiumean.

BAZPI TXIRRINDULARITZA ESKOLA

postuetan "baina azken itzulian kamara gurpiletik ateratzaio eta hirugarren geratu da," aipatu digute eskolako lagunak.

Kadete mailan, berriz, Iñigo Altunak bakarrik bukatu zuen proba. Saiatu arren ez du egun ona izan. Lasterketa bukatu eta gustora geratu da," aipatu dute.

Amorebietan garaile

Bestalde, igandean, Amorebietan lokatza, euria eta hotza izan zuten Bazpiko txi-

rindulariek. Baina horrek ez zituen kokildu eta jubenil mailan taldeka probako irabazle izan zen Buruntzazpi txirrindulari eskola

Xuban Errazkinek asteburu ederra egin zuen eta proba honetan ere hirugarren postua eskuratu zuen. Jon Ander Unanue 6. postuan izan zen eta Luis Sobejano eta Harkaitz Murillo lehen hogeien artean izan ziren.

Kadete mailan ere, Iñigo Altuna fin ibili zen eta 5. postuan amaitu zuen lasterketa.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 23
Asti-txiki, Zarautz, 09:30ean
Zarautz-Ostadar
I. infantil
Michelin, 10:30ean
Ostadar B-Amara Berri
I. infantil
Mallona, Bilbo, 10:30ean
Danok Bat-Ostadar
Euskal Liga, Kadeteen Ohorezko maila
Michelin, 14:00etan
Ostadar-Urnieta
I. Kadetea
Michelin, 15:30ean
Ostadar-SANSE
I. jubenila
Herrera, Donostia, 15:30ean
Asoleus-Ostadar
I. Erregionala
Martutene, Donostia, 15:30ean
Martutene-Texas Lasartearra
I. jubenila
Michelin, 17:15ean
Ostadar-Hondarribia
Jubenilen Ohorezko maila
Igandea 24
Usabal, Tolosa, 10:00etan
Euskalduna-Ostadar
I. alebina

Michelin, 11:00etan
Ostadar-Bergara
Erregional Ohorezko maila
Felix Garin, Donostia, 12:00etan
SANSE B-Ostadar B
I. Kadetea
Zubipe, Hernani, 13:00etan
Hernani-Ostadar
2. urteko alebina, eskola

ARETO-FUTBOLA

Ostiralera 22
HERRIKO TXAPELKETA
19:45ean, Arkupe-Balardi
20:45ean, Trumoi-Buenetxea

Larunbata 23
HERRIKO TXAPELKETA
09:15ean, Viña del Mar-Urdaneta H.K.
10:15ean, Aritza-Indaux
11:15ean, Ilargi-El Punto
12:15ean, Txindoki-Izarra

Kiroldegia, 15:30ean
ISU Leihok-Barrantol
Gipuzkoako Liga
Kiroldegia, 18:00etan
Aldaz H.K.-Sasikoa Durango
Nazional III. maila

SASKIBALOA

Larunbata 23
Mons kiroldegia, 11:45ean
Internacional-Ostadar SKT
Nesken junior maila, parte-hartzea
Igandea 24
Labegarieta kiroldegia, Bergara, 16:00etan
Soraluece Bergara-Ostadar SKT
Nesken kadete maila, errendimendua



PILOTA

Larunbata 23
Kirol guneko pilotalekua, 16:00etan
Intza-Aurrera Saiaz 2
Eskuz binaka bikotea, I. jubenila
Ezker hormako txapelketa, finalerdia

Igandea 24
Hernani, 11:00etan
Hernani-Intza
Eskuz binaka bikotea, II. kadetea
Ezker hormako txapelketa



beltza eta danak lortzeko azterketan parte hartuko dute.

ATLETISMOA

Igandea 24
Donostia, 09:00etan
Herriko atletak Donostiako Maratoi eta Maratoi erdia proban izango dira.
Donostia, 09:10ean
Herriko hainbat atleta Donostiako Maratoiaren 10 km-ak proban parte hartuko dute.

IGERIKETA

Larunbata 23
Ordizia, 16:00etan
Buruntzalde IKT-ko infantil, junior eta senior mailako igerilariak Errendimendu eta Parte-hartze ligako jardunaldia dute.

JUDO

Larunbata 23
Usabal, Tolosa, 12:00etatik aurrera
LOKEko hainbat judoket gerriko

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 23
Atsobakar parkea, 11:00etan
Buruntzazpi txirrindularitza eskolako infantil eta alebinek saioa dute.
Antonio Elortza belodroma, 16:00etan
Buruntzazpi txirrindularitza eskolako gazteek pistako Gipuzkoako trofeoako lehen jardunaldia dute.

Igandea 24
Berriz, Bizkaia, 10:00etatik aurrera
Buruntzazpi txirrindularitza eskolako junior eta kadeteek Berrizko Udala Sarian parte hartuko dute. Ziklokros denboraldiko proba.

ERRUGBIA

Larunbata 23
Michelin, 12:10ean
Beltzak Ostadar Gure Etxe-Getxo
Euskal Liga, kadeteak

— Agenda —

Asteburu osoa, Lasarte-Oria



Okendo zinema taldeak 25 + 2 urte

Okendo Zinema taldeak 25+2 urteurrena ospatuko du asteburu honetan. Atzo hasi ziren ospakizunak, "Paris, Texas" filmaren emanaldi bereziarekin. Gaur, berriz, film laburren emanaldia izango da Manuel Lekuona kultur etxean. Kimuak-eko hainbat film labor eta herriko taldeen ekintza bereziak izango dira honetan. Bihar, berriz, mozorro festa handia izango da eta igandean, haurrentzako filma euskaraz. Goza dezagun zineaz beste era batera.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Ostirala 22, 22:00etan
 Kimuak-eko film laburren emanaldia eta herriko hainbat taldeekin antolatutako sorpresak.
Igandea 24, 17:00etan
 "Zarafa" umeentzako filmaren saio berezia izango da. Sarrera, leihatilan 3,60 euro; internet bidez, 3,18 euro. Euskaraz.

ZULO ARETOA
Larunbata 23, 21:00etan
 Mozorro festa glamurosoa egingo da. sorpresaz beteriko jai.

Mbaka Oke, Amalgama, Kulto Kultibo edo Sorkunon doinuak eskainiko ditu. Ondoren, Irungo Dj Rask-en saioa izango da. Sarrera, 7 euro.

Santa Zezilia eguna

LASARTE-ORIAKO ERDIGUNEA
Larunbata 23, 12:00etatik aurrera
 Kantujira izango da. Xumela korua eta Zarauz eta Hondarribiko kantujira taldeko kideak izango dira. Animatu abestera!

ARANTZATZUKO AMA ELIZA
Igandea 24, 12:30ean
 Alboka Abesbatzak Zumaburuko Arantzazuko Ama elizako meza nagusia girotuko du.

Sari banaketa

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Larunbata 23, 12:00etan
 Lasarte-Oriako Literatura Lehiaketako sari-banaketa egingo da. Helduen, zein haur eta gazteen mailako sariak eman- go dira.

Lasarte-Oria

Genero indarkeria

EMAKUME ZENTROA
Ostirala 22, 19:00etan
 Sexuen arteko bizikidetzarako emakume zentroaren aurkezpena egingo da.

ARAETA JATETXEA
Ostirala 22, 21:30ean
 Herriko pertsona guztiei irekitako afaria izango da. Ostein, dantza eta Dj-a.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Larunbata 23, 11:00etan
 Maite Francok 4 eta 8 urte arteko hau-

rrerentzat "Bizarurdinak" ipuina eskainiko du.

OKENDO PLAZA
Astehelena 25, 19:00etan
 Emakumenen aurkako indarkeriaren egunean elkarretaratzea izango da.

Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Larunbata 23, 20:00etan
 Lasarte-Oria Dantzan ekimenaren barruan, "B. Flowers" dantza ikuskizuna eskainiko du Marta Carrascoren dantza konpainiak. Sarrerak, leihatilan 6,50

euro; internet bidez, 5,40 euro. Eusko Jaurlaritzak babestutako ekintza.

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Igandea 24, 19:30ean
 Helduentzako zinea, "Paris, Texas" filma eskainiko dute. Sarrera, leihatilan, 5,85 euro; internet bidez, 5,30 euro. Gaztelaniaz.

Musika

ZULO ARETOA
Ostirala 22, 21:30ean
 "Eardrum" taldeak besteak beste,

Donostia

X. urteurrena

LE BUKOWSKY MUSIKA KLUBA
Larunbata 23, 19:00etatik aurrera
 Xpressionk elkarteak bere 10. urteurrena ospatuko du. Lehenik, Lasarte-Oriako "Makulu Ken", "Acido C" eta "Nunguayaz" taldeen kontzertuak. 23:30etik aurrera, "Revolutionary Brothers dj set", "Mikel Saldise" eta "Javi P3Z" dj-en saioak. Musika estilo desberdinetaz gozatzeko gaua.

— Herritarren txokoa —

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da gaur azaroaren 22an, ostirala, arratsaldeko 17:00etan.

Biyak Bat elkarteak Calahorrara

Biyak Bat Elkarteak hileroko irteera antolatuta du Calahorrara, azaroaren 28an izango da txangoa. Autobusa goizeko 8:00etan aterako da egoitzatik. Calahorra herriz bizitatu eta bazkaria "El Montecillo" finka jate-txean izango da. Bazkal ostean, bingo, dantzaldia eta jai "kanperoa" izango direla jakitera eman dute bidaiko antolatzaileek.

Elkarteko bazkideek 35 euro ordainduko dituzte eta bazkide ez direnak, berriz, 40 euro. Izena emateko egoitzako bulegora hurbildu behar da.

Lasartearra elkarteko barrikotea eta loteria

Lasartearra elkarteak bazkideei eta lagunei jakinarazten die, urtero antolatzen den barrikoterako izena ema-

tea ireki dela. Elkarteko zuzendaritzak jakin arazi duenez, abenduaren 8a izango da izena emateko azken eguna.

Era berean, Gabonetako loteriako txartelak salgai ditu. Hauek eskuratzeko, elkarteko egoitzara, Erribera Kalea 10 atzealdea, hurbildu behar dira interesatuak.

Ingeles Mintzapraktika

Ingeles ikasten ari garen lagun talde bat gara eta astean behin ikasitakoa praktikan jarri nahi dugu. Ingeles maila ertaina edo gehixeago baduzu eta zuk ingeles mintzapraktika nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan, solaskideinglesa@gmail.com.

Marrakzi eta margo klaseak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jakinarazten du, marrakzi eta pintura klaseetan izena emateko aukera dagoela. Klaseak asteazken eta ostiraletan dira, 18:30etik 20:30era Manuel Lekuona kultur-etxeko 2. solairuan. Interesa duten herritarrak gerturatu daitezela klase orduetan.

— Hemeroteka —

Duela 1084 ale

1995 urteko azaroak 17an Okendo Zinema taldearen 10. urteurren berri ematen zen. Honetaz gain, urte horretan ere, zinemaren 100. urteurrena ospatzen zen.

Bi data garrantzitsu hauek ospatzeko, aste honen antzera, 1995ean, bost egunetako egitaraua antolatuta zuen Okendo Zinema Taldeak.

Orduan, genero eta garai desberdinetako bost film ikusteko aukera izan zen Manuel Lekuona kultur-etxean.

Zientzia fikzio futurista aurkezten duen "Metropolis" (1927), Orson Wells-en lehen filma "Cuidadano Kane" (1941), Audrey Hepburn protagonista den "Desayuno con diamantes" (1961) filma, Polanski-ren "La semilla del diablo" (1968) beldurrezko filma Mia Farrow gaztearekin eta Ridley Scott zuzendari eta besteak beste, Harrison Ford aktorea lanetan izan zen zientzia fikzioko "Blade Runner" (1982) filmak izan ziren orduan herritarrek ikusi zituztenak. Bakoitzaren fitxa teknikoa aurkezten zen TXINTXARRIN argitaratutako erreportajeetan.

Honetaz gain, prezioak nola aldatu diren ikus daitezke albistean. Orduan, film bakarrerako sarrerak 225 pezeta balio zituen, gaur egungo 1,35 euro. Bost filmak ikusteko bonoa ere egin zen, honek 900 pezeta balio zituen, 5,41 euro.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Zahartze aktiboa aztergai

Astelehenetik ostegunera Osasun Astean ospatuko da Manuel Lekuonan

Beste urte batez, XXI.Osasun jardunaldiak antolatu dira Lasarte-Orián. Hurrengo astean, astelehenetik ostegunera zahartze aktiboa gaitzat izango duten hitzaldi sorta izango da Manuel Lekuona kultur-etxean. Hauen barruan, Lasarte-Oriako Udala, Osakidetza eta Osasun publikoaren azpizuzendaritzaren arteko elkarlanarekin aurrera eraman den "Zahartu" programa aurkeztuko dute.

TXINTXARRI

Zahartze aktiboa" izango da aurtengo Osasun jardunaldien gaia. Horrela jakin arazi zuen Nerea Sanchez, Hirigintza, Ingurugiroa eta Osasuna saileko buruak asteartean Kontzeju Txiki plazan dagoen ariketa fisikoa egiteko parkean egindako aurkezpenean.

"Azken urtean, Lasarte-Oriako Udalak, Osakidetza eta Osasun publikoaren azpizuzendaritzak adineko pertsonak modu aktiboan eta osasungarrian mantentzeko "Zahartu" programan lanean izan dira," azaldu zuen.

Programa honen helburua pertsona adinduei zuzendutako plana diseinatu eta garatzea da. Honetan ekintza osasungarriak txertatzen dira, hala nola, kirola egitea.

Gaia interesgarria delakoan, aurtengo Osasun jardunaldietan hau jorratzea erabaki du Lasarte-Oriako Udalak.

Hitzaldi sorta

Hirigintza, Ingurugiroa eta Osasuna saileko arduradunak aipatu zuenez, hitzaldi sorta hau astelehenetik ostegunera eskainiko da. Urtero legez, jardunaldiak Manuel Lekuona hitzaldi aretoan izango dira, 19:00etatik aurrera eta hauek arlo desberdinetako adituak izango dira hizlari lanetan.

Astelehenean, "Jarduera fisikoa eta elikadura osasungarria" izango da hizpide.

Enrique Contreras Osasun zentrok zuzendaria, Yolanda Atorrasagasti familia medikua eta Karlos Altuna Kirol Zerbitzuko arduraduna izango dira bertan eta pertsona adinduek osasuntsu egoteko hartu beharreko hainbat ohitura aztertuko dituzte.

Gizarte Zerbitzuetako arduraduna Maite Higuero "Zahartze aktiboa" gaia jorratuko du asteartean.

Honetan Gizarte Zerbitzuen lana azaltzeaz gain, Gizarte Zerbitzu eta zahartze

aktiboaren arteko lotura eta bizi kalitatea hobetzeko dauden errekurtsuak azalduko ditu.

Zahartzea eta afektibitatea izango da gaia asteazkenean. Aingeru Mayor sexologoak, besteak beste, zahartzaroko sexualitatea edo udazkeneko erotikari buruz hitz egingo du.

Azkenik ostegunean, "Zahartu" proiektuaren aurkezpena egingo da M^{re} Jose Goñi Gizarte Zerbitzuetako langilea eta Makarena Dominguez komunitate agentea izango dira ekimena azalduko dutenak. "Hauek izan dira proiektuan lanean egon diren pertsonak," azpimarratu zuen Nerea Sanchezek aurkezpenean.

Eta honetaz gain, proiektuko teknikari eta parte-hartzaileekin egindako bideo bat ere ikusi ahal izango da.

Gonbita

Hau guztiaz gain, Lasarte-Oriako herritarrei Osasun jardunaldi hauek parte hartzeko deia gonbita luzatu nahi izan die Hirigintza, Ingurugiroa eta Osasuna saileko buruak, baita Kontzeju Txiki plazan dagoen ariketa fisikoa egiteko parkera asteartean 10:30etik aurrera hurbiltzera ere.



Pertsona adinduek kirola egiteko aukera dute Kontzeju txiki plazako parkean. LOU

XXI.Osasun jardunaldiak: Zahartze aktiboa

Astelehena 25, 19:00etan

"Jarduera fisikoa eta elikadura osasungarria"

Hizlariak:

Enrique Contreras, Osasun zentrok zuzendaria
Yolanda Atorrasagasti, familia medikua
Karlos Altuna, Kirol Zerbitzuko arduraduna

Asteartea 26, 19:00etan

"Zahartze aktiboa: Gizarte Zerbitzuetatik"

Hizlaria:

Maite Higuero, Gizarte Zerbitzuetako arduraduna

Asteazkena 27, 19:00etan

"Zahartzea eta afektibitatea, pozez beteriko sexualitatea"

Hizlaria:

Aingeru Mayor, Sexologoa

Osteguna 28, 19:00etan

"Zahartze aktiboa, Lasarte-Oriako komunitatean esperientzia bat" aurkezpena

Hizlariak:

M^{re} Jose Goñi, Gizarte Zerbitzuetako langilea
Makarena Dominguez, Komunitate agentea

Gabonetako jostailu guztiak

Beti danik, aholkularitza

Aprovecha nuestros chollo-precios personalizatuá gure bezeroei



Karmelo Etxegarai 2 (Benta Berr).

Donosti 943 22 79 10

Prim 59 (Donosti)

943 45 53 00

Avda. Letxumorro 86

(Irun) 943 45 75 10

Urtebetetzeko
meriendak
festak
antolatzen ditugu
Ostegunetan
PINTXO POTE

ZULO

Asteazkenetik
igandera

17:00etatik
aurrera

IREKITA

Zulo Aretoa: Hipódromo Etorbidea 11, Lasarte

WWW.SALAZULO.COM